

«Zikinak, gaiztoak eta faltsuak. Mozkorrak. Lizunak. Ustelak. Ankerrak, borrokazaleak zakarrak trauskilak. Bihozgabeak eta makurrak.

Halakoak dira nafarrak.

Franko bat hiltzeko gai dira txanpon baten truke.

Jaten dutenean, txerriak dirudite.

Sarri, mandoekin eta behorrek larrua jotzen dute.

Eta mintzatzen direnean, zaunkaka ari direla ematen du, hain da basa beraien hizkuntza».

Poitou aldetik etorri da XII. mendean Aymeric Picaud izeneko fraidea zaldi gainean erromes. Done Jakue bidean barrena dabilelarik, euskaldunen kexu da.

Picaudek Lizarran egun batzuk emateko asmoa du. Bertan frankoen komunitate bat dago, alegia, haren ohitura eta hizkuntza berberak dituen gizajendea. Erromesaldira itzuli baino lehen atsedean hartu ahal izango du.

Lizarran euskara da nagusi. Hala ere, belarriak pixka bat zorrotzuz gero, erromantze nafarra, gaskoia, arabiera, hebreera eta latina ere entzun daitezke.

Halaxe da, aldeak alde, beste toki batzuetan ere: Iruñean, Tuteran, Donibane Garazin edo... Baionan bertan, non ingelesa ere aditu daitekeen, hiria une horretan Ingalaterrako portu baita.

Beraz, hamaika hizkuntza Erdi Aroan nagusi den euskararen inguruan.

Hamaika mintzaira, doinu eta azentu.

Ez beti, ordea, bake ederrean.

EUSKARA JENDEA
Gure hizkuntzaren historia,
gure historiaren hizkuntza.
ANIZTASUNAREN BIDEAN

V. mendearen hasieran herri germaniarrek Rhin ibaia zeharkatu zuten.

Europako ekialdetik etorritako alanoak, bandaloak eta sueboak euskara jendearen hegoaldean kokatu ziren, Iberiar Penintsulan. Herri hauek sortutako egitura politikoez ez zuten luze iraun: geroago heldutako herri bisigodoak suntsitu egin zituen.

Pirinioen ipar aldean, berriz, mende bat beranduago, frankoek, Galiaren jabe egin baziren ere, ez zuten Akitania nekez eta aldizka baizik kontrolatzerik lortu.

Garaiko kronikek iradokitzen dutenez, baskoiek ipar eta hego aldeetako auzokide berriei aurre egin zieten, baina, oro har, bertoko lur jabeek akordioak bilatu behar izan zituzten.

Giro honetan, belaunaldi batean, Erromako Inperioa hautsi egin zen.

Aldaketa sakonak izan ziren jarduera guztietan: produkzioan, komunikazioan, boterearen egituraketan... Bizitzaren arlo guztietan, alegia.

Erromatarrek luzaro eraikitako arkitektura politiko-administratiboa ustekabean hondatu zen.

Baina ez zen erabateko kultura-hausturarik gertatu.

Juan Jose Larrea Euskal Herriko Unibertsitateko doktorea da Historian. Haren esanetan, egitura handi baten kolapsoa eragin bazuen ere, Europan, Erdi Aroaren hastapenetan, ez zen inondik inola zibilizazio-aldaketa traumatikorik izan.

Juan Jose Larrea

Bai hemen bai Inperio osoan tokian tokiko aristokraziek, tokian tokiko familia handiek, tokian tokiko lur jabeek egoera berrira moldatu behar izan zuten, akordioak egin, konbinaketak, estrategia politiko berriak. Mundua puskatzen hasita zegoen. Inperioa puskatu zen, botere lokalak agertu ziren, lurraldean lurraldeko botereak. Orduan, nire ustez, horretan kokatu behar dugu Inperioaren bukaera eta ez, aldiz, ordezkatzeari: erromatarrak joan ziren eta germaniarrak etorri.

.....

Erromako Inperioa jausi orduko, Goi Erdi Aroa deituriko aldiaren hasieran, paisaia zeharo bestelakotu zen.

Aurreko mendeetan izandako leku nabarmena galdu zuten hiriek. Batzuk, Iruña-Veleia kasu, ahulduz joan ziren, betiko desagertu arte.

Baina Belen Bengoetxea Erdi Aroko arkeologian berezitatuko Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak adierazten duenez, salbuespenik ere izan zen.

Belen Bengoetxea

Pompaelo transformatu egin zen, baina bere izaera hiritarra edo urbanoa izaten jarraitu zuen. Merkatu-sareetan sartuta zegoen, polikikoki garrantzitsua zen eta Goi Erdi Aroan ere garrantzia izan zuen apezpiku baten egoitza izan baitzen. Hau da, Goi Erdi Aroan ere ez zuen bere papera galdu, bere garrantzia.

Euskal Herrian, tamalez, aztarna arkeologiko gutxi daukagu Goi Erdi Aroko lehen mendeetan.

Gehienbat nekropoliak induskatu dira.

Arabako Langara Ganboa herrian dagoen Aldaieta aski garrantzitsua da. Nekropoli hau ostielamenduaz ageri da, hau da, hildakoen ondoan eguneroko bizitzan erabilitako elementuak azaldu dira. Besteak beste, aldean ezpatak, aizkorak eta lantza-puntak zeramatzatela lurperatu zituzten gizonezkoak.

Armen presentzia hau frankoen eraginarekin lotu izan da.

Belen

Zer gizarte zegoen han? Zer antolaketa? Bazegoen hierarkizazio bat? Ez zegoen? Horiek oso galdera garrantzitsuak dira, eta datozen urteetan erantzuten saiatu beharko dugu.

VI. eta VII. mendeetarako baziren herrixka goiztiar batzuk. Arabako Aldaieta eta San Pelaio edo Bizkaiko Finaga bezalako nekropoliak horren seinale dira.

Baina gizarte-antolamenduak ez ezik, hizkuntzek ere nozitu zuten aro berriaren etorrera.

Herri germaniarrek bideratutako kultura nahasketek areagotu egin zuten mintzaturiko latinaren desitxuratzea.

Erdi Aro osoan latinak hizkuntza landua izaten jarraitu zuen arren, aldi berriko hasierarako ez zeukan garai batean izandako balio politiko bera.

Larrea

Une hartan, maiz, lur jabeek laguntza militarra bilatu behar zuten alboko haranean zegoen botere lokalean, askotan ordura arte mespretxatu zituzten artzainen

taldeen artean. Eta, hortaz, ordura arte etxean bakarrik erabilitako hizkuntzak edo inguru horretan bakarrik erabilitako hizkuntzak balio berri bat hartu zuen. Latinaren aurrean, euskarak balio berri bat hartu zuen estatus soziopolitikoari eusteko orduan.

Balio berriarekin batera, adituen esanetan, Goi Erdi Aroaren hasieran euskarak halako batasun linguistiko bat ere erakutsi omen zuen.

Hizkuntzalariek euskara batu zaharra deitzen diote batasun horri.

Berez, euskara batu zaharra eraikuntza teoriko bat da, 1981ean Koldo Mitxelenak proposatua.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Historia eta Gramatika Historikoko katedraduna dugu Joseba Lakarra. Haren hitzetan, erromatarren garaitik edo aitzin-euskaratik euskara etengabe aldatu izan balitz, euskalki edo dialekto modernoek arteko desberdintasunak askoz handiagoak ziratekeen.

Joseba Lakarra

Mitxelenak bilatzen zuena zen hizkuntzan, kanpoko arrazoiren bategatik, nolabait eman zedin, ez duela 2.000 urte baizik eta gugandik dezente hurbilago, halako batasun bat, zeinetarik haustean euskalkiak aterako ziratekeen.

Batasun hori testuinguru historiko batean kokatu beharra dago. Gaur egungo euskalkien arteko desberdintasunaren abiapuntua Goi Erdi Aroan omen dugu.

Lakarra

Horretarako oinarri batzuk bazirela pentsatzen zen. Alegia, Erromako Inperioa suntsitua zen. Haren tokia hartu behar zuen Erreinu Bisigodoak ez du ematen, baskoien artean, aurrekoek zuten indarra izan zuenik. Autonomia horren edo urruntasun horren eszenarioan, Mitxelenak pentsatu zuen barneko batasunen bat sor zitekeela. Eta hark esplikatu zuen lehenagoko etenek aurrera egin beharrean batzea eta bakarrik beranduago berriro etortzea hausturak, oraingo dialektoak emango zituztenak.

Garai hartan, bestalde, euskarak aldaketa geografikoak ere jasan zituen.

Alde batetik, lurralde zabalak galdu zituen Akitaniako lautadan eta ekialdean, Pirinioetan barrena, erromatarren aroan hasitako joera sakonduz.

Iberiar Penintsulan, bestetik, euskara hego-parteko zenbait tokitara hedatu zen.

Hain zuzen ere, Goi Erdi Aroan berriro populatu ziren lurralde batzuk.

Lakarra

Euskal Herrian hizkuntza nagusia zen euskara. Bakarra ez, baina bai, ordea, nagusia. Orduan, pentsatzekoa da berpopulaketetan euskara ere zabaldu zela. Errioxan, Burgosen, Sorian eta horrelakoetan, esate baterako, froga nahiko garbiak daude. Beste kontu bat da zehatz-mehatz jakitea noiz eta zenbateko intentsitatearekin eman ziren.

Lurralde horietako toki-izen askok ez diote zirriturik uzten dudari: Ayerbe, Loarre eta Basaran, mendebaldeko Pirinioetan; Atapuerca, Zalduendo edo Ezquerria, Burgosen; eta Ochánduri, Altuzarra edo Ezcaray, Errioxan.

Eta toki-izenekin batera, orduko testigantzak ere badauzkagu.

Esaterako, XIII. mende hasieran, Errioxako Ojacastroko biztanleek arazo bat izan zuten Gaztelako gobernadorearekin. Herritarrek euskaraz deklaratzeko eskubidea aldarrikatu zuten haren aurrean eta, ez zituenez aintzat hartu, preso hartu zuten.

Bestalde, Huesca hiriko merkatuan bertan hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen zen. XIV. mendean, ordenantza batek Arabiera, Hebreera eta Euskara baztertu zituen salerosketa tratuetan, 30 sol ordaintzeko mehatxupean.

Hainbeste euskaldun ibiltzen ote zen Huesca inguruan kontuan hartzeko modukoa izateraino?

.....

VIII. mendean aldaketa bat gertatu zen herritarren antolaketan eta bizimoduan.

Are gehiago, adituen iritziz, VIII. mendea funtsezko mendea dugu Erdi Aroa ulertzeko.

Belen

Zergatik? Zer gertatu zen zortzigarren mende horretan? Zortzigarren mendean herrixka sarea sortu eta indartu zen. Ez herrixka solteak, baizik eta herrixka-sare bat.

Bestela esanda, gaur egunera arte ailegatu zaigun paisaiaren hazia gorpuzten hasi zen.

Herrixka hauek, bestalde, beste pauso bat eman zuten handik hamarraldi batzuetara:

IX. mendean, elizak herri barruan sartzeari ekin zioten, Gasteizko Santa Maria kasu.

Botere berrien erakusgarri bilakatu ziren.

Belen

Antolaketa horretan elizaren presentziak hori adierazten zuen, alegia, elite berri batzuen presentzia. Botere zentrala ahulduta zegoen eta tokiko botere berri batzuk sortzen hasi ziren, elite berri batzuk, tokikoak edo lurraldekoak. Ezberdinak izan zitezkeen, baina azken finean hurbilak ziren. Familia berezi batzuk ari ziren sortzen eta indarra hartzen. Eta familia haiek sartu zituzten elizak herrixken barruan.

Poliki-poliki botere horiek lurraldetasun berriak sortu zituzten.

Euskal Herrian, Iruñeko Erresumaren sorrera izan zen lurraldetasun horien adierazle nagusia.

Lehenago, hala ere, historiak geldialdia egin zuen Orreagan.

Karlomagno enperadorea Frantziara zihoan, Iruñea, ongi ezagutzen ez diren arazoirengatik, osoki suntsitu ondoren. Pirinioetara iritsita, armadaren erretagoardiari bortizki eraso zioten.

Dirudienez, segadak ez zuen eragin zuzenik izan Erresumaren sorreran, baina bai, ordea, geroako herri-literaturan.

Larrea

Orreagan desastre bat gertatu zelako berria eta oroitzapena Frantzia osotik zabaldu zen. Literaturan sartu zen. Belaunaldi belaunaldi sortu ziren kantetan, sortu ziren tradizioetan geratu zen izen hori. Eta geratu zen bataila baten oroitzapena Inperioaren mugetan. Hori, geroago, idatzizko literaturara pasatu zen, Errolanen kanta idatzi zenean. Hainbat tradizioetara ere pasatu zen, frantsesek ekarriak Santiago bidean barna. Baina Nafarroako kroniketan ez dago IX. edo X. mendeetan Orreagaren oroitzapenik. Orreagaren tradizioa frantsesek ekarri zuten berriro.

Iruñeko Erresuma musulmanen itzalpean sortu zen, oso testuinguru konplexu batean.

Alde batetik, Kordobako Emireerriaren periferian zegoen eta, beraz, haren arauekin eta haren sistema politikoaren barnean jokatu behar zuen. Bestetik, barruko legezketasuna ere mantendu behar zuen.

Egoera horrek tentsioak sortu zituen, baina, oroz gainera, lurraldea egituratzeko nagusitasuna eman zion.

Apurka-apurka botere politiko bat azaleratu zen, beti ere konplexutasun sozial eta kultural baten barruan.

Horren adibide egokia Iruñea bera dugu.

XII. mendean hiru burgo edo auzo nagusi zituen: Nafarrerria, San Zernin eta San Nikolas. Nafarrerian nafarrak bizi ziren; beste bietan, nafar erregeen politikaren ondorioz, jatorri ezberdineko frankoak batez ere.

Fisikoki elkarren ondoan bazeuden ere, juridikoki komunitateak guztiz diferenteak ziren.

Bestalde, bakoitzean hizkuntza nagusi bat izanagatik ere, alboko mintzairaren ezagutza askotan uste baino hedatuago zegoen.

Larrea

Lehenengo inpresioa izan daiteke euskara Nafarrerian erabiltzen zela eta besteetan okzitaniera bakarrik. Hala da. Baina, noizean behin, testuetan azaleratutako datuek erakusten digute egoera nahastuago zegoela.

Izan ere, Erdi Aroan ohikoa zen hiztun komunitateen arteko elkarbizitza.

XII. edo XIII. mendeetan belarria Nafarroa aldera emanez gero, dozena erdi bat hizkuntza baino gehiago entzun zitezkeen.

Larrea

Euskara entzun zitezkeen, jakina. Gehienek egiten zuten. Erromantzea hegoaldean erabiltzen zen, Artaxoan, Tafallan, Zarakastelutik behera, baina gehienek euskara erabiltzen zuten. Burgoak ere bazeuden, frankoen komunitateak. Frantziako hegoaldetik etorri ziren frankoak. Forua eman zieten. Haiek okzitaniera mantendu zuten. Juduak ere bazeuden. XI. mendean juduen auzo bat zegoen eta komunitate berriak instalatu ziren. Beraz, hebraiera ere entzun zitezkeen. Konkistatutako Erriberan arabiera ere bizirik zegoen. Latina ez zen inoiz desagertu. Okzitanieraren aldaera den gaskoia ere bazegoen. Gaskoia gehiago mugitzen ziren kostaldean, Gipuzkoan, baina baita Nafarroan ere.

Euskal Herria egiazki lur anitza zen Erdi Aroan.

Hala ere, hizkuntza eta kultura ezberdinak lurralde berean izateak ez digu pentsarazi behar, inondik inora, elkarbizitza gatazkarik gabea zenik.

Sarri, ika-mikak eta, areago, borrokak sortzen ziren komunitateen artean, gehienetan estatus politiko desberdinek eraginda.

Iruñean, esaterako, Alfontso I.a erregeak, San Nikolaseko eta Nafarreriako bizilagunei ez bezala, pribilegioak aitortu zizkien San Zerningo frankoei. Horrek eta beste auzi batzuek ezikusiak eta haserreak piztu zituzten herritarren artean.

Hamarkada luzetako gatazkek goia jo zuten 1276n Nafarreriako Gerra piztean. San Zerningo eta San Nikolaseko frankoek, Frantziatik etorritako armada baten laguntzaz, zeharo txikitu zuten Nafarrerria.

.....

Beharbada, Donejakue bideak islatzen du hobekien kultura aniztasuna Erdi Aroan.

Galiziako herri kultu baten gainean eraiki zen IX. mendearen hasieran Donejakue apostoluaren legenda, funts historikorik ez duen kondaira.

Dena den, gutxienez beste bi mende iragan beharko ziren erromesaldirako leku nagusi bihurtu arte.

Santiagok, batetik, hiri eta gune nagusiak lotzen zituen: Donibane Garazi, Izura, Gares, Iruñea, Lizarra, Zangoza...

Bestetik, erromesek ofizioak, tradizioak, istorioak, kantak, eta abar ekartzen zituzten.

Ideiek etengabe zirkulatzen zuten harat-honat.

Horren isla da Aymeric Picaud.

Fraide honek, *Codex Calixtinus* liburuko *Erromesaren Gida*-ra bildu zituen hamabigarren mendean Santiagorako bidaian bizi izandakoak.

Baina, horretaz gain, euskarazko hitz batzuk ere jaso zituen, eta, hartara, berak jakin gabe, ezagutzen den lehen euskal hiztegitxoak sortu zuen:

Larrea

Picaud-ek orduko nafarrak deskribatu zituen, orduko euskaldunak. Haren esanetan, txakurren zaunkek bezalaxe jotzen zuen belarrian euskaldunen hizkuntzak. Hala ere, hiztegitxo bat egin zuen. Mespretxugarria zen, baina 10, 12 hitz jaso zituen. «'Ogia' esateko 'hau' esaten dute, 'zerua' esateko 'ortzi' esaten dute, 'Santiago' esateko 'Jaun Donejakue', eta holako hitzak».

Picaudek, euskara txakurren zaunken pare jarri arren, ekarpen interesgarria egin zion gure hizkuntzalaritzari.

Lakarra

Esate baterako, Aymeric Picaudek hor sartu zituen Jainkoaren izena, Amabirjinarena, elizarena, eta hala. Horiek artikuludunak dira. Baina, bestalde, 'arrain' sartu zuen, 'ogi', 'urik' eta halako beste hainbat hitz. Hainbat eta hainbat, guztira dozena eta erdi dira. Beraz gainerako hitzak, alegia, lehendabiziko hirurak ez direnak, beti artikulurik gabe agertzen dira. Aldiz, hiru mende beranduago guztiak agertu ziren modu modernoan artikuluekin. Hori, euskararen morfologian, aztertzeke oso puntu inportantea da.

.....

Erromako usadioari jarraiki, Erdi Aroan ere latinak maila desberdinak azaldu zituen: bat, idaztean erabiltzen zena: latin klasikoa; eta beste bat, hiztun arruntek egiten zutena.

Urteak joan urteak etorri, baina, jende arruntaren latina garatzen, osatzen eta aldatzen hasi zen tokian toki.

Mende luzeetako bilakaera geldoa izan zen.

X. menderako, mudantza horien ondorioz, hizkuntza erromanikoak garbi bereiz zitezkeen Europako leku askotan.

Euskararen inguruan lau erromantze eratu ziren: okzitanieraren aldaera den gaskoia ipar aldean; aragoiera eta erromaniko nafarra ekialdean; eta gaztelera hegoaldean.

Kaleko hizkuntza biziok XI. mendean agertu ziren lehendabizikoz testu idatzietan.

Errioxako Donemiliagako monasterioaren kodize batean glosak deitutako ohar batzuk daude Latina ez den hizkeran.

Glosa horiek gaztelararen lehen idazkitzat hartu izan dira luzaro. Baina, gainera, haietako bi euskaraz daude.

Lakarra

Beraz, latinezko testu batean, orduan sortzen ari zen erromantzea ez ezik, euskara ere erakusten digute glosek. Eta, zer duda egin, euskara azaldu behar bazen hitz

egiten zutelako zen. Eta ez bakarrik norbaitek hitz egiten zuela, baizik eta oso zabaldua zegoela euskara. Hori da, nire ustez, ondoriorik garrantzitsuenetarikoa.

Oso pixkanaka, XII. eta XIII. mendeetatik aurrera, hizkuntza erromanikoak izkribuetan ere hasi zitzaizkion latinari tokia hartzen.

Jabego eskriturak, Elizaren paperak edo gobernuen aginteak bezalako idatzi zibiletan gero eta pisuagoa zen erromantzeen lekua.

Euskararenak, aldiz, hutsaren hurrengo izaten jarraitzen zuen.

Dena den, euskara ezin ezkutatu da eta nonahi ageri da idazkietan. Horrek garbiki erakusten du herria idazten ez zen hizkuntzan mintzaten zela.

Izan ere, hizkuntzek beren esparruak zituzten. Ohikoa izaten zen idatzia bat izatea eta herritarrek erabiltzen zutena, berriz, beste bat.

Larrea

Hemen gaude, Argiñetan: han inskripzio bi daude, IX. mendekoak. Latinez daude. Baina egun horretan, han dagoena lurperatu zutenean, Momo, erritu guztia, ibilbide guztia, familiaren etxean egingo zen oturuntza, bestelako erritoak, joan-etorriak, dena... euskaraz egin zen. Kenduta, apaizak otoitzik egin bazuen, latinez egingo zuen. Eta, gero, hori bai, oroimen idatzia latinez utzi zen.

Lakarra

Jose Maria Lakarra historialariak zera esaten zuen: Erdi Aroko Nafarroan euskara gogoz kontra agertzen da. Alegia, mundu guztiak edo, behintzat, jende gehienak bakarrik hizkuntza hori erabili arren, ia kasualitatez baino ez dela horrelakorik agertzen. Noski, mendiak eta bestelakoak deitu behar zituztenean, ez zen bestelako hizkuntzarik. Orduan, kultura idatzia eta nolabaiteko gizarte mailako funtzio larrienak ez zeuden euskarari lotuta. Baina hau ez da, noski, bakarrik Erdi Aroan gertatzen, askozaz beranduago arte gertatzen den kontua da.

Hitz idatziaren zabaltzeak eragin zuzena izan zuen hiztunenengan.

Orduraino, herritarrak euskaldun huts izatea ez zen inolako traba izan.

Une horretatik aurrera, ordea, itzulpenaren morroi bilakatu ziren, hala administrazio zibilaren, nola Elizaren aferetan.

Egoera honek, noski, erdara baloratu eta haren ezagutza bultzatzen zuen, euskara eginkizun mugatuetara zokoratzen zuelarik.

Denbora honetan hasi zen oraindik XXI. mendean indarrean dagoen prozesua. Hitzunen komunitatean gertatu zen barne desorekaren hastapenak dira.

.....

Guardia, Bastida, Ainhoa; Bilbo, Urduña, Donapaleu... Antoñana, Bergara, Segura, Viana, Etxarri Aranatz, Maule, Balmaseda...

XII. eta XIV. mende bitartean hiribilduak fundatu ziren Euskal Herrian.

Nagusiki errege-erreginek emandako foruen bidez, hiribilduetako bizilagunek hainbat eskubide bereganatu zituzten, besteak beste, merkataritzan, eraikuntzan eta zerga-bilketan aritzekoak.

Hiribildu gehienak aldez aurreko kokalekuetan edo herrietan eraiki ziren. Bakar-bakarrak hiribildu berantiarrak, XIV. mendekoak, sortu ziren leku libreetan.

Edozelan ere, goitik behera bestelakotu zuten gizarte-antolamendua. Erdi Aroan lehenengoz, erlazio hertsia sortu zen hiriaren eta bere inguruko lurraldearen artean.

Belen

Hiribildua berez ezin da sortu. Hiribilduak, mantentzeko, bere *hinterland* zabala behar zuen. Erdi Aroko hirien ezaugarri bat hiriaren eta bere lurraldearen arteko lotura zen, bien arteko harreman estua eta dialektikoa. Oso beharrezkoak ziren bata eta bestea. Biak. Azken finean, hiribildura sartzen ziren materialak bere lurraldetik sartzen ziren. Merkatu- eta industria jarduerak burutzeko, jendeari jatekoa emateko, eta abar, kanpoko jendea behar zuen, kanpoko lana. Bestalde, kanpoko jendeak, *hinterland*-eko jendeak, hiribilduaren presentzia behar zuen bere produktuak ateratzeko, merkaturatzeko, eta abar.

XIV. mendearen bueltan, hiribilduak oso dinamismo ekonomiko handian sartuak ziren, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan.

Larrea

Batetik, kokatuta zeuden Gaztelako artile- eta iparraldeko manufaktura-guneen artean. Beraz, nolabait, bitartekaritza lana bete zuten merkataritzan artilea eramateko iparraldera eta Gaztelako oligarkiak demandatzen zituen produktuak iparraldetik ekartzeko. Burdinaren eskaria disparatu zen Europan: Ehun Urteko gerraren denbora zen, Behe Erdi Aroko krisiaren denbora, gerrak ugaltzen ari ziren toki guztietatik. XIV. mendean, XX. mendean bezala, industria belikoak garatu zuen teknologia.

Arrazoi ekonomikoez gainera, interes politikoak eta estrategikoak izaten ziren tartean hiri-kartak ematean. Helburua, betiere, jauntxoak ahultzea eta lurraldea kontrolatzea.

Erdi Aroaren amaieran, burgesia sortu berriaren eta aristokrazia zaharraren arteko tentsioak larriagotu egin ziren.

Larrea

Merkataritza, garraiolaritza... disparatu egin zen. Aiton-en-emeak, hau da, aristokrazia zaharra, atzean geratu zen. Dinamismoa hirietan bildu zen batez ere. Jada Bizkaia eta Gipuzkoa bezalako lurraldeak hiriez josita zeuden. Orduan, betiko agintariei errenta iturri berriak eskapatzen ari zitzaizkien. Gainera, XIV. mendean krisi demografikoa gertatu zen eta betiko errentak galdu zituzten: nekazariak hil ziren, beste batzuk hirietara alde egin zuten... Aristokraziak bortizkeria erabili zuen ahalegintzeko errenta iturri berri haiek eskapa ez zitezen.

XIV. eta XV. mendeetako bandoen arteko liskarrak horren erakusgarri ditugu. Gudok, batez ere, familiek edo elkarteek osatutako taldeen arteko kabalkadak izan ziren, erreketak, segadak. Bataren dorretxea erraustu eta bestearen soroak hondatu. Erailketak, bataila handiak baino gehiago.

Auzitan botere politikoaren kontrola zegoen.

Larrea

Eta bandoen gerretan hori erabaki zen. Geroago hori jantzi egin zen. Erretorika bat eman zitzaion, ohorearena, betiko nobleziarena, leinuen artekoena. Baina, funtsean, herri berri horren azpian zegoena zera zen: pobreziatik, Goi Erdi Aroko pobreziatik ateratzen ari ziren lurralde haietan nor gailentzen zen. Eta, noski, Koroaren laguntzaz burgesia gailendu zen, hirietako burgesak jabetu ziren botere politikoaz.

Epika horren parte eta lagun dira, noski, denbora horretan sortutako ipuin, kondaira, bertso eta kantak, erretrauekin batera ahozko herri literatura osatzen dutenak.

Garai hartan bakanak ziren latinez zein erromantzez idazten ziren liburuak. Gainera, euskaldun gehienek ez zekiten ez erdaraz ez irakurtzen. Honengatik guztiagatik ere, ahozko literatura bizi-bizirik zegoen euskara jendearen artean, gainerako herrien artean bezala, bestalde.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioan edukiak behin eta berriz aldatuak eta birsortuak, eragin handia izan zuen geroko literaturan.

Baina, horretaz gain, herri literaturak garaiko euskararen berri ere ematen digu.

Lakarra

Hizkuntzalariontzat, gainera, bada beste kontu bat. Herri-literatura, batez ere herri-literatura tradizionala, formulen gainean eraikia dago eta aurreko hizkuntzaren ezaugarriak gordetzen ditu, aurreko mendeetako hizkuntzaren ezaugarriak, bestelako edozein lekukotasunek baino hobeto. Orduan, guk XVI. mendean bilduak diren kantuen eta errefrauen bitartez, XV. mendean edo XIV. mendean sortutako narrazioak eta kantuak direla antzeman dezakegu gutxi-asko.

Herritarrak bereziki hunkitu ohi zituzten istorioak bertso berrien gaia izaten ziren askotan.

Pentsatzekoa da, era berean, gertaera lazgarriek hatz sakonagoa uzten zutela jendearengan, bertsoak mendez mende irauten lagunduz.

Zuberoako *'Bereterretxeren khantoria'* bertso sailak, adibidez, 1449. urte inguruan izandako heriotza bat du oinarri. Halakoxeak, baita ere, *Beotibarko Kanta*, *'Urrexolako kanta'* edo *'Martin Bañezen' eresia*.

Kantuok guganaino iritsi dira herriak abestuta. Batzuek, gainera, kanpoko egileen jakinmina ere piztu dute.

Toscanan jaioa baina bihotzez irlandarra eta euskalduna, Antonio Breschi konpositore eta piano-jotzaileak munduan barna zabaldu ditu kultura desberdinetako kanta tradizionalak, haien artean XVIII. mendekoa omen den *'Jaun Baruak'*, herri-musika eta modernitatea uztartuz arrakastarekin.

Antonio Breschik luzaro arakatu du herri-kulturaren zoko-mokoetan. Haren baitan aurkitu dizkie arrapostuak musikak eginiko galderei.

Antonio Breschi

Erroek sekulako garrantzia dute kulturaren. Errorik sinpleena ere bada oso garrantzitsua. Zuhaitz bateko sustrairik sinpleena izugarri konplexua izan daiteke. Eta horixe da, hain zuzen, ene emanaldietan erakutsi ohi dudana: herri-kulturaren errotzearen adierazlea da herri-musika.

Breschi

Musika hizkuntzari lotuta dago zeharo. Euskara adibide ezin egokiagoa da. Hizkuntza misteriotsua eta konplexua da, baina aldi berean sinplizitate handia gordetzen du bere baitan. Musikaren sustraian hizkuntza dago. Eta musika guztien erroan herri-musika dugu.

Breschi

Euskal Herrian antzinako herri-kulturak ardura dit. Beharbada, gehiago interesatzen zait euskara musika baino. Euskal musikak ikaragarri eman dit, baina areago hizkuntzak berak.

Breschi

'Jaun Baruak' kanta sinboloa da niretzat. Beste batzuk bezalaxe, herri-kulturaren adierazgarri garbia da. Zentzu horretan da sinboloa niretzat.

Breschi

'*Jaun Baruak*', bestalde, Euskal Herriarekiko lehen harremanean azaldu zitzaidan. Grezian entzun nuen lehenengo aldiz, Mikel Laboaren '*Baga Biga Higa*' kantarekin batera. Harrez geroztik, kanta haren hamaika bertsio osatu ditut eta Benito Lertxundirekin abestu izan dut. '*Mezulari*' diskoan kanta entzun zuenean, neskalgun irlandar ohia txunditurik gelditu zen. Europan barrena kantatu dut, Brasilen... baina bereziki Irlandan egin izan diote harrera ezin hobea. Aspaldi, emanaldi batean, kulturgile irlandar garrantzitsuenetako batzuek jakinarazi zidaten hain zuzen ere '*Jaun Baruak*' gustatu zitzaizela gehien.

Herri literaturak herritarren gogo-beharrak asetzen zituen: gertaerak deskribatzen, istorioak asmatzen, mitologia transmititzen, baloreak erakusten... garaian garaiko mundu ikuskerara oso bat zabaltzen zuen jendez jende.

Erdi Aroaren amaieran, transmisioan etenik eman ez bazen ere, sekulako aldaketak izan ziren.

Euskararen herrian, Nafarroako Konkista izan zen gertaera nagusia eta erabakigarria, nahiz eta askoz lehenago hezurmamitzen hasi.

Europan, berriz, jazoera bik ezarri zuten aro aldaketa: Johannes Gutenberg-en inprenta modernoa eta Cristobal Colon Amerikara heldu izana.

Bigarrenaren ondorioz, Modernitatean, Europako erresumak lurralde berrien xerka itsasoratu ziren.

Ordurako, baina, euskal arrantzaleen ontziek hamarkadak zeramatzen Ternua aldeko itsasoetan nabigatzen.

Eta joan-etorri haietan, jakina, baleazale haiek euskara eroan zuten berekin.

Aro Modernoaren hastapenetan, hortaz, Euskal Herrian euskarak hizkuntza nagusia izaten jarraitzen zuen, baina, gainera, zerbait aldatua zen:

Bere txikian, urrutiko lurralde haietan ere bazen trukerako eta harremanetarako hizkuntza.

Menturaz, horregatik idatzi zuen 1609an Marc Lescarbot abokatu eta bidaiari frantsesak kostaldeko indiarren mintzoa «erdi euskara» zela.

